

# GAS NATURALAREN DILEMA HERBEHEREETAN: PREST GAUDE GRONINGEN HOBIA IXTEKO?

Energia krisiarekin Herbehereetan bidegurutze bat sortu zaie: munduko gas natural hobi handienetako bat itxi, aurreikusita zegoen bezala, edo irekita mantendu Europaren presioei men eginez? Eskueran ditugun energia iturri oparoak aprobetxatzeak nolabaiteko kalteak onartzea eskatzen duela dioen "sakrifizioaren" eztabaida hauspotzen ari dira eliteak, Ukrainako gerraren testuinguruan. Eztabaida pozoindua, herritarrak aterako baitira galtzaile.

 URKO APAOLAZA AVILA

**G**roningen frisiarren lurralde historiko eta garrantzitsuenetako bat izan zen mende askotan, ubideekin drainaturiko nekazal eremu lau eta aberatsek lagunduta, bere eragina inguruko lurraldeetara ere zabaldu zuen. Baina lur emankor horien azpian beste altxor bat aurkitu zuten XX. mendearen erdialdean: munduko gas natural hobi handienetako. Azkar hasi ziren baliabide hori ustiatzen eta Herbehere guztiak konektatu zituzten energia iturri horretara, herrialdearen garapenerako funtsezko bihurtuta. Hirurogei urte eta gero, hobiaren %80 agortuta dago jadanik, baina oraindik 450.000 milioi metro kubo gas natural geratzen direla kalkulatu dute adituek –Europar Batasuneko herrialde guztiak urtebetean kontsumitzen dutena adina–.

Herbeheretarrek 2014 urtetik erauzketara amaitzen joatea erabaki zuten, inguruan sortzen zituen kalteak oso handiak zirelako, lurrikarak, lur hondoratzeak eta akuiferoen kutsatzea tarteko. Groningendik erauzitako gas kopurua gutxitzen joan dira urtez urte: 2023an 2.800 milioi metro kubo ekoiztuko dira soilik eta 2024rako hobia guztiz ixtea zuen aurreikusia Herbehereetako Gobernuak... Ukrainako gerraren testuinguruan sorturiko egoera geopolitiko nahasia tartean sartu izan ez balitz. Honek azalera zitatuko energiarekiko Europaren menpekotasunak dilema baten aurrean jarri ditu: prest al gaude Groningen ixteko?

Otsailean Errusiak Ukrainari eraso

egin ondoren, Europar Batasunak (EB) harturiko neurriek –batez ere zigor moduan hango petrolioaren eta gasaren prezioei muga bat jartzea– eta *Nord Stream I* eta *Nord Stream II* gasbideei iraila amaieran egindako sabotajeek, ekarri dute gas errusiarraren inportazioa asko jaitea EBn. *Think tank* moduan funtzionatzen duen Bruegel europar elkarteak bere webgunean emandako datuen arabera, urteko 41. astean Errusiako gasa inportaturikoaren %7,6 baino ez da, oso gutxi iaizko %33aren aldean.

Baina Vladimir Putini hartu nahi ez diogun gas hori guztia beste nonbaitetik lortu beharra dago, eta kasu honetan AEBetako edo Qatarreko metano-ontziek ekartzen digute itsasoz likidoturik, ez opari noski. Herbehereetako TTF (*Title Transfer Facility*) indizeak markatzen du gas merkatuaren prezioa European: momentu honetan lasai dago, abuztuarekin konparatuta, seguruenik herrialde gehienek euren biltegiak %80tik gora dituztelako bete-ta, neguan zer gertatuko zain.

Hala ere, Groningen gozoki handiegia da estraktibistentzako. "Gaur egun jasaten ari garen krisi energetikoaren aurrean, erdigunean egon behar lukeen baliabide preziatua da", idatzi du Lionel Laurent *Blomberg* hedabideko zutabegileak Herbehereetako gas-hobiaz. Bere esanetan, gainera, "arduragabea" litzateke ez kontuan hartzea azken urteetan Groningenen 54.000 milioi metro kubo

gas gutxiago atera direnez, Errusiarekiko menpekotasun handiagoa sortu dela bat-batean: "Orain menpekotasun hori azkar ezabatu behar da, kostu handiz, europarren batasuna, moralitasuna eta finantzak probatuz".

Herbehereetako lehen ministro Mark Rutte oraingoz ez du aipatu ere egin nahi Groningen itxiko ez dutenik, herritarrak oso haserre baitaude urte guztioan jasandako kalteekin. Groningendik gasa erauzteko frackingaren antzeko teknika erabiltzen dute, arroka bigunena zulatuz. Hobia hiru kilometroko sakoneran dago eta zohikatza karbono bihurtzearen ondorioz sortu zen asfal-di. Gainean, baina, kilometro bateko gatz geruza lodia dauka...

## "ZAHARRAGO EGIN GAITU"

1986an lehen lurrikarak nabaritzen hasi zirenetik milatik gora izan dira –2013ko otsailean gertatu zen lurrikara larrietako bat, Loppersum herrian (10.000 biztanle)–; orduan eta sakonago zulatu, orduan eta lurrikara arrisku handiagoa. Groningengo tokiko administrazioek 2015ean egindako txosten baten arabera urte horietan guztietan 152.000 etxebizitza kaltetu dira, horietatik 27.000 oso larri eta 3.300 bota behar izan dituzte.

"Zaharrago egin gaitu, estres handia izan baitugu, bihotzeko arazoak... zoriontasuna kendu digu", diote etxea galdu duten Jannie eta Bart Schrage senar-emazteek BBCK uztail honetan argitaratutako



EUROPE 350

### LURRIKARAK

1986tik gutxienez 1.000 lurrikara zenbatu dituzte Herbehereetara Groningen eskualdean, lurrazpitik gas naturala erauztearen ondorioz. Milaka izan dira bota behar izan dituzten etxebizitzak, eta askoz gehiagok kalte larriak izan dituzte, argazkian ikus daitezkeen bezala.

erreportaje batean. Hedabide britainiarren arabera, Groningengo Unibertsitateak egindako ikerketa batek agerian utzi du eskualdean urtero hamasei pertsona hiltzen direla "goizegi", zuzenean lurrikarrek sorturiko estresagatik.

Bizi dugun energia larrialdi egoeran, baina, kalte horiek ez omen dira "konpentsatu" ezin daitezkeen ezer eta presioak nabarmenak dira: Thierry Breton EBko Barne Merkatuaren komisarioak esan du Herbehereek berriz aztertu beharko luketela ixteko erabakia. Hobia ustiatzen duten ExxonMobil eta Shell konpainiek eskuak igurtzi dituzte; kalkulatu batzuen arabera bilioi bat dolar dago oraindik lurrazpian.

Konpentsazioaren ideia hori egungo gizarte globalean errotzen ari dela azaldu du Kurt Cobb energia aferetan

adituak *Resource Insights* ("Baliabide aurreikuspenak") bere blogean: "Ideia horrek buruzagi faltsuei bidea irekitzen die azaltzeko zergatik den beharrezko sakrifizioak egitea helburuak lortzeko. Baina sakrifizio horiek gizartean boteretik ez dutenek egiten dituzte; ez buruzagiek edo sakrifizio horien onuradun diren aberats eta boteretsuek". Groningenen badira iritziz aldatu eta etsiak hartuta ospa egin dutenak.

Cobbek blogean gogorazi du hango laborantzan negutegiak berotzeko gas kopuru handia erabiltzen dela, okindegiek ere gauza bera egiten dutela, eta etxebizitza ia guztietan metanoa erretzen duten labe eta gailuak dituztela, gas merkearen garaian erruz jarritakoak. Euren ekonomia frackingean oinarritzearen atakan daude orain herbeheretarrek.

Klima larrialdiak eta Ukrainako gerrak hauspotuta, energia lortzeko teknologia arriskutsu eta kaltegarriak erabiltzearen eztabaida pozoindua toki askotara ari da zabaltzen. Energia nuklearraren kasuan, Frantziako Estatuan ikusten ari dira zein garesti irten daitezkeen horren aldeko apustua, erreaktoreen erdia geldirik baitaude hainbat arazorengatik; baina hala ere Emmanuel Macronen gobernuak sei erreaktore berri ireki nahi ditu. Euskal Herrian, berriz, EAEko lege batek ustez geldituriko fracking bidezko proiektuak berpizteko probestuko ote dute aukera batzuek? Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari Iñigo Ansolak maiatzean Euskadi Irratian halako zerbait iradoki zuen: "Gasa hor dago, lege batek aukera hori gelditu zuen, baina Euskadik jarraitzen du gasarekiko menpekotasun handia izaten. Datua hori da". ●

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f w